

## KANALAK

Baloretzko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatuko den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iritsiko den jakin behar dugu. Gure kasuan, kanal propioen eta elkartutako kanalen nahasketa bat egingo dugu; horrela, jende gehiagora iristeko aukera izango baitugu.

Alde batetik, online denda bat izango dugu, kanal zuzeneko dena. Bertan gure produktua saltzerakoan lortuko dugun etekina handiagoa izango da; izan ere, ez da bitartekorik egongo eta irabazi guztiak guretzako izango dira.

Bestalde, elkartutako kanala ere izango dugu, internet konexioa eskuragarri ez duten bezeroek gure produktua eskuratzeko erraztasuna izateko. Horretarako, gure herriko hainbat ortopedia dendekin harremanetan jarriko gara, gure produktua sal dezaten; irabazien banaketari dagokionez, akordio batera iritsi ondoren. Guk gure denda propioak ez zabaltzearen arrazoia, produktu bakarra dugula da, beraz, ez litzake errentagarria izango inbertsio hori egitea.